



Fitxa teknikoa

Nik ere nahiko nuke mango bat. Miren Juaristi / Aitziber Alonso. Denonartean, 2015

Liburuaren aurkezpena

Luishino eta Teandra etxetxo batean bizi dira. Ezer gutxi dago haien txabolan, baina mango-zuhaitz bat hazten da etxe ondoan eta oilo sail batek erruten ditu bere arrautzak inguruan. Gazte zirenean eskuz jasotzen zituzten mangoak, baina bikotea zahartu egin da eta mango-zuhaitza aldiz, erruz hazi da. Zain-zain egon behar izaten dira, mangoren bat lurrera noiz eroriko.

Oiloen artean ere arazo bat sortu da: oilo bat zahartu eta ezin arrautzik errun. Teandra errukitzen da oilo zaharrarekin, eta mango bat eskaintzen dio berotzeko. Gainontzeko oiloen txitak jaiotzen dira, baina oilo zaharrak mangoa erruten jarraitzen du, gau eta egun, euri ala eguzki.

Halako batean “kakaraka” handi bat entzuten da eta oilo zaharrak harro erakusten du berak “txitatu” duen mangoak ekarri duen zuhaitza.

Nola kontatu

Kontaketa ezin da ilustrazioetatik bereizi; eskutik doaz biak.

Ilustrazioek istorio xume zoragarria azaltzen digute.

Istorioak ekartzen dizkigu ilustrazio eder eta oparoak.

Ilustrazio planteamendu koloretsuak ez ditu estaltzen protagonistek dituzten neke eta sentimenduak; horiek hartu behar dira kontutan.

Proposamenak bideratzen

- Ilustrazioen bidez istorioa eraiki.
- Gehien gustatzen zaizkien ilustrazioak oinarri, istorio paraleloak sortu.
- Gaztetasuna eta zahartasuna alderatu.

Proposamenak zehazten

- Teandrak eta Luishinok lagundu egiten diote oilo zaharrari
- Aitonak eta amonak zer egiten dute zure familiari laguntzeko?
- Zuk zer egiten duzu zure aitona-amonari laguntzeko?
- Hauek denak etxean galdetu, kontatu eta aitona-amonari gutun bat kontatu.